## EUKARISTIA, KRISTOREN PAZKOAREN SAKRAMENTUA

1. Eukaristiaren iraspena Alkartasun Barrian lau lekutan edesten da: Mt 26, 26-29, Mk 14, 22-25, 1Kor 11, 23-26. Joanen ebanjelioa be aipatu daiteke, edo gogoratu bear dogu: ez ditu iraspenaren berbak eta egiteak edesten, baiña, 6garren atalean biziaren ogiari buruzko itzaldia aurkezten deusku, eta, 13garren atalean, azken afarian, oiñak garbitzea eta agindu barria jarten ditu. Badira Alkartasun Barrian eukaristia ikutzen daben beste testo batzuk.

1Kor 10, 16 testoan (55garren urtearen ingurukoa), Paulok "zatitzen dogun ogiaz" eta "bedeinkatzen dogun bedeinkapenaren kalizaz" dagi. 1Kor 11,20 testoan, ospakizunari "Jaunaren afaria" deitzen deutso. Apostoluen Egiñetan eukaristia "ogia zatitzea" izenaz aipatzen da (2, 42.46). Paulok "Jaunaren maaia" izena be emoten deutso (1Kor 10,22). Leenengo mendean eukaristiak geien bat "ogia zatitzea" izena artu eban aurki. Mendearen azkenerantza eta bigarren mendearen asikeran agiri da "eukaristia" izena: eskerrak emotea esan nai dau, eta, azken baten, "bedeinkapen" (Pauloren "bedeinkapen-kaliza") eta "goralpen" itzakaz bat dator edo bardin esan nai dau. Bardintasun au dala ta, ikus, esate baterako, Mt 11,25; Lk 10,21; Jn 11,41; Errm 1,8; 7,25.

Beste izen batzuk be erabilli izan dira istorian zear: "sakrifizioa", "synaxis" (batzarra), "misterioa", "dominicum", "liturgia", meza (latiñezko "missa", bearbada agurtuz bialtzea esan nai

ebana). Izena ez da beti ain garrantzitsua, istori eragiñak finkatua data. Baiña ez da garrantzi bakoa: izenak errealidaderen zein alderdi geien azpimarratzen dan erakutsi dagike, eta olan da izan be, jakiñaren gaiñean eta aukeratuz erabilten danean.

2. Bibliako testoak, Elcizako Gurasoen eta leenengo gizaldietako idazleen idazkiak, liturgiako testoak (eukaristiaren ospakizunean an-or-emenetan erabilli izan diranak) be erakusten dabe guk gaur, bastez be Baticano II Kontsilioaren ondoren, argiago ikusten doguna eta nabaritu bearrekoa: eukaristia Kristoren pazkoaren sakramentua dala.

Erreiñuaren sakramentua da, beste guztien gaiñetik. Erreiñuko maaia eta jaia. Baiña maaia onetan Jesus Jaunak biltzen gaitu, bera dago maikideen artean, erdian. Zelan dago? Itaun oni erantzun nai deutso idatzi onek.

Eukaristiaren iraspen errelatoetan, azken afaria agertzen da gure eukaristiaren ospakuzinari sorrera emoten. Beraz, eukaristia, leenengo ta bein, jan-edan lez ulertzen da (ikusi dogu Paulok "Jaunaren afaria" deitzen dauala). Giza aldetik eta erlejiño aldetik jan-edana esanguratsua da berez Jesusek bizi dauan judutar giroan: zentzun ori ez da agiri judutar pazko afarian bakarrik. Bestera da gauzea: pazko afariaren giza eta erlejiño erangureak alkar jan-edanaren berezko esangurean dau sustraia. Jesusegan ikusten dogu au sakon eta egiaz beterik: "jan" eta "edan" egiten dau besteakaz, pazko aurreko bizitzan eta pazkoa ondorengo erlatoetan. Jan eta edateak, leenengo, azkurria, bizigarria esan nau dau. Eta alkarregaz jateak alkartasuna, anaitasuna adierazten dau, eta, orrela, Jainkoagazko alkartasuna (bizia eta bizigarria beragandik dator eta). Jesusen jan-edate orreek itxaroten eta iragarten dan Erreiñuko maaia adierazo eta aurrez zeleanbait gorpuzten dabe. Ondorioz, azken afaria Mesias-afaria lez agertzen da. Ez da edozein jate erlijioso. Mesiasegaz beronen destinoan, "itun barrian" (Lk 22,20; 1Kor 11,25) parte artzearen sakontasuna eta

indarra ditu. Erreiñuaren bertan-bertango urbiltasunaz beterik dago. Erreiñu au Berbizkunde eta Espiritu lez agertuko da. Besteak, ostera, Jesusen ingurukoak be bai, eta azken afarian maikide ziranak, euren erara itxaroten eben Erreiñua. Jazo arte ez eben ulertzerik izan.

Agur afaria izan zan, joianaren azken borondatea agertzeko: "Egizue au neure oroigarri", eta Joanek dakarzan itzak eta egiteak: zuek be garbitu bear deutsazuez oiñak alkarri (Jn 13,14). Solidaritzak, Jesusen zorian eta alkarren zorian parte artzeak, eta bedeinkapenak eratzen dabe azken afariaren, Jaunaren azken borondatearen guna.

Eukaristiak, iraspenaren berben ariora, Kristoren eriotza dau gogoan, salbagarri dan eriotza: sakrifizioa. "Zuekaitik emongo dan gorputza", "zuekaitik isuriko dan itunaren odola". Eukaristia Kristoren eriotz salbagarri onen "memoriala", oroigarria lez ulertzen da. "Memorialak" esan gura dauan guztia kontun izanik: ez da leenaren oroipen utsa, oraingotu egiten da, eta benetan parte artzen jate-edate eran Kristoren eriotza dan emote salbagarrian. Eriotz ondoren, bere esistentzia aintzatsuan, Jaunak bereei emoten eta komunikatzen jarraitu nai dau, bere bizian parte izan dagien ("zuekaitik", askogaitik, guztiakaitik). Mesias bera, bere izatea, bere personea, izango da sinestedunentzat bedeinkapenaren iturria eta bizi-janaria. Ogia eta ardaoa emotean labur-biltzen da Jesusen bizitzako, eriotzako eta berbizkundeko emotea.

Guzti au Kristoren eta ikasleen, jarraitzailleen arteko erlaziño personalean ulertzen da. Ez da "gauza" santu bategazko erlaziñoa, Kristogaz beragazko artuemona dogu. Jesusen eriotzak ez dau eteten berak ikasleekin asi eban alkartasuna. Bestera da egia: alkartze sakonagoa, argiagoa eta unibersalago aalbideratzen dau azken emote arek, Jesusen presentzia barriari esker. Presentzia barri au bere berbizkundea deitzen doguna da. Alkartasun barrian, "Espirituan" bizi izatea be deitzen da.

Errealidade bardiñera doaz itz oneen eta beste batzuen esangura sakonekoak.

Eukaristia ulertzean, eta batez be ospatu, otoitz eta bizi biurtzean, istorian zear alderdi ezbardiñak azpimarratu izan dira. Orrela illundu edo erdi aaztu be egin dira beste batzuk. Orain, alderdi diferente orreek euren zentzuna eta egiaren oreka nondik artzen daben erakutsi bear da apur bat zuzenago.

3. Judutarren pazkoak antziñatik, eta Jesusen aldian (Jesusek berak parte artzen ebala) Ejiptotik urtetearen jazokun andia ospatzen dau: urteera ori (ospakizunean) askapena da, ituna, erria eratzea, Jaugoikoaren babesa, agindutako lurrerantzako bidea. Judutarrak batez be pazko-afarian ospatzen eben urtero jazokun salbagarri au. Ospakizunak jazotako egite salbarriagaz alkartzen ditu ospatzailleak eta luzatu egiten dau jazokun a agindutako etorkizunerantz..

Kristoren errealidade sakonak (misterioak) bere betera eroan eban irudi, gurari eta promesa zan au. Joanen ebanjelioan (13, 1) ikusten da pazko barria Kristo Aitagana igarotzea dala. Momentu orretara arte Joanek "judutarren pazkoaz" itz egiten dau, eta emendik aurrera, ostera, "Kristoren pazkoaz": pazko barri onetan beste era bateko askapen betiko eta unibersala jazoten da. Alkartasun Barriak guztien salbamenerako eskeintzen dan pazko bildotsa lez aurkezten dau Jesus Jauna (Jn 1,29-36; 19,6). Paulok Kristo, gure pazkoa, erailla izan dala diño (1Kor 5,7). Pedrok kristau fedea Kristoren eriotzean, illen lekura jatsitzean eta berbiztean biltzen dau (1Pe 1,13-21). Alkartasun Barriko edespenak Kristoren gorputza eta odola emotea Urteera liburuko (24) itun-ospakizunaz lotzen dabe (batez be Mt, Mk eta Eb 8-9).

4. Orain, beraz, eukaristia Kristoren pazkoaren sakramentua da. Kristoren pazkoa bere kurutzeko eriotza eta berbizkundea dira batera. Eritotzetik berbizkunde aintzara "igarotzea",

"Aitaren eskumaldean jarrita egotea", eta orrela betiko Erreiñuari asiera emotea. Eukaristia ezeze, kristau errealidadeari begira, Pazkoa da dana ulertzeko giltza eta argia: Kristoren izakera bera, Elizaren izatea, kristauaren bizitza, sakramentuak. Danak datoz pazkoatik, pazkoako Kristogandik. Orain ez diardut, zuzenean beintzat, Elizea eta onen sakramentuak Kristo istorikoak sortu ebazan ala ez arazoaz. Dana dala arazo orretaz, egitez orain Elizaren izatea (sakramentuak barne dirala) Kristo berbiztuak argitzen dau bakarrik. Esan daigun: ez orain bimilla urte berbiztu zanak, orain bizi danak baiño, Espirituz beterik danak. Pazkoako Kristo onek bere atal egiten gaitu (bateoa), bere Espirituaz indartzen gaitu (sendotza), gure bizi eta alkartasun janari da (eukaristia), pekatari garala be onartu egiten gaitu eta pekatuaren eta txarraren kontrako garaipenean bere lagun egiten (penitentzia, berradiskidetzea), gaisoaldian, jausialdian bizkortu egiten gaitu (gaisoen igurtzia), gizonaren eta emakumearen maitasuna bedeinkatu eta bere maitasunaren agerpide biurtzen dau), kristau komunidadeari bere izeneko zerbitzariak emoten deutsoz (ordena, apaizgintza). Sakramentu oneek Jesusen bizitza istorikotik eta berbiztuaren espiritutik sortu dira, eta bere presentzia salbarria orokorraren seiñale berezko batzuk ditugu.

Geroago eta argiago ikusten dogu kristau izate guztia kristologian datzala, eta ain zuzen be pazkoako Kristogan. Baiña Jesus berbiztuak ez ditu atzean izten kurutzea eta aurreko bizitza. Gorde egiten ditu beragan betirako. Eta gorde be egiaz berbizkundearen errealidadean bakarrik gorde daitekez. Bestera istoriaren joan-etorrian galduak litzakez, beste jazokun guztien eran. Orregaitik, Kristo berbiztua da kristau fedearen giltza. Kristo bera nor dan berbizkunndearen mende dago: berbizkundea deitzen dogun errealidadeak agertzen dau Kristo nor dan.

Eukaristia pazkoa ikuspegitik ikusi eta bizitzea Jaun aintzatuaren presentziaren argitan ulertzea da. Kristo berbiztua da presente egiten dana, konbidatzen gaituana. Orrela da "memorial"

bizia, poz iturri, itunaren barriztapena, goralpen, bedeinkapen eta alkartea sortu eta biziazoten dauana. Eukaristiako Jesus Jauna Aitaren aintzatan esistentzia barria artu dauana da, kreaziño barriaren leenengo semea, Espirituaren indar osoa esperimentatu dauana eta Jainkoz betea dana. Alkartasun Barriko testoei jarraituz "igokundea" esaten doguna ez da izan beste barik urruntzea edo joate utsa ("Komeni jatzue ni joatea", Jn 16,7). Orain presente izateko beste era barria da: zabalagoa eta sakonagoa. Izate barri onetatik egiten da presente eukaristi ospakizunean. Ez da materialki ulertu bear presentzia au. Presentzia "sakramentala" da (zelanbait esateko), Kristoren esistentzia aintzatsuan errotzen dana. Joanen testoan agertzen da Aitagana joatea eta Espirituaren indar bizigarria dirala Elizan gertatzen diran bere presentzia guztien iturri eta zentzua: "Au jatzue oztoparri? Eta zer Gizonaren Semea leen egoan lekura igoten ikusi dagizuenean? Espiritua da bizia emoten dauana, aragia ez da ezertarako gauza (Jn 6,62-63). Eukaristia ez dogu seiñale oroigarria utsik, objetiboa da, egitezko presentzia: Jaunaren beraren doaia, ez gure ekarria ( au da Elizak beti aldeztu nai izan dauana, berbak eta aldiko ideiak gorabeera). Baiña presentzia au ez da beste gauza materialen artean eta fisikoki gertatzen: fedearen artuemonean eta dimentsioan gertatzen da.

Eukaristia, beraz, Jaun berbiztuaren presentzia dogu Erreiñuko maaia inguruan alkartzen diranen erdian, Emaus-en jazo zan lez (Lk 24, 30-32). Erdi arotik gure egunetara arte begia eta ardurea nekaldian eta kurutzeko eriotzean jarri izan dira, eta errealidade istoriko a zelan biurtzen dan presente ospakizunnean zan arazoa. Sarritan Berbizkundea bistatik desagertu egin zan. Guretzat gai orrek ez dau era berean jarraitzen. Berbiztuak artzen eta gordeten ditu, era berbiztuan, bere giza izatea eta gurutzeko eriotzea. Orregaitik, orain be jarraitzen dau esaten: "Au nire gorputza da zuekaitik emoten dana", "au itunaren odola da, zuekaitik isurtzen dana": baten egin ebana, betiko irauten dau Beragan eta Aitaren biotzean, eta guk betiren beti eskeiñi geinke eta egia osoaz bat egin eskeintza orre-

gaz, edo, obeto esanda, bat egin emona dan Berbiztuagaz. Egoki diño Eliza Katolikuaren Katekismoak: "Aitaren eskumaldean jarririk eta bere Gorputzari, Eleizeari, Espiritu Santua isuriz, Kristok orain berak bere grazia emoteko sortututako sakramentuen bidez ekiten dau" (1084). Badakigu, sakramentuak Jaunaren presentziaren seiñale batzuk dira, beste presentzi era batzuen artean. Danak ulertu bear dira Jaun berbiztuaren argitan. Orregaitik, guretzat orain ez dauka garrantzirik sakramentuen sortze istorikoaren arazoak, garrantzi ori beste leku baten ikusten dogu: Kristoren izatea bera eta, ondorioz, aren presentzia berbiztua da kristau fedearen muiña eta edapenaren arrazoi guztia.

5. Leenengo kistauen esperientzian (Alkartasun Barriko testoetan), "Espiritua" deitzen jako Jesus Jaunaren esistentzia barriari eta gure arteko bere presentziari. Ikusi dogu Espiritua dala aragiari bizia emoten deutsona, Espirituan jazo daiteke bakarrik jaten emoten dauan Jaunaren arteko eta onartzen daben siñestedunen arteko alkartze salbagarria (Jn 6,63). Espirituari esker dauka Jesus Jaunak "espirituzko" gorputza (1Kor 15,44). Espirituak edegitzen dau fedearen atea, guk presentzia ori onartu daikegun. Alkartze au topaketa fisiko eta espaziala baiño dimentzio sakonago eta egiazkoan gertatzea Espirituak eragiten dau.

Orregaitik dei egiten deutsagu Espirituari, opari materialak eta personak eraldatu dagizan. Azken baten, eukaristiaren egia gertatu daitela eskatzen dogu: gure adimena eta borondatea edegi daitezala Jesus Jaunaren oraingo eta betiko presentzia salbagarrira.

*Luis Arostegi*